

1978-VIII-25

Donostian, Gipuzkoako Diputazio Jauregian, 1978.ko Abuztuaren 25ean, arratsaldeko laurretan, bildu dira: L. Villasante buru, J. Haritschelhar buruorde, J.L. Davant, A. Irigoyen, F. Krutwig, E. Larre, P. Laffite eta J.M. Satrustegi euskaltzain jaunak; J.L. Alvarez Enparanza, X. Aranburu, M. Atxaga, J.M. Iriondo, X. Kintana, J.A. Letamendia, J.L. Lizundia, M. Ruiz Urrestarazu, P. Xarriton, J.M. Torrealday eta A. Zatarain euskaltzain laguntzaileak, E. Knörr idazkari bezala egiten duelarik.

Diharce, Hiriart-Urruti, P. Larzabal, Lojendio eta San Martin jaunek beren ezin etorria adierazi dute.

Ezer baino lehen, Euskaltzainburuak ongi etorria ematen dio, Batzारेaren izenean, F. Krutwig euskaltzain jaunari, urte askotan halabeharrez urrunduari.

a) HARREMANAK

Datorren asteazkenean, 30ean, Logroñon, Juan Bautista Merino Urrutia, euskaltzain ohorezkoaren *El vascuence en la Rioja y Burgos* deritzan liburua argitalpen berriaren aurkezpena egingo da. I haz erabaki bezala, lan hau, "Instituto de Estudios Riojanos" eta Euskaltzaindiaren erdibanako argitalpena da. Aurkezpen hortara, Euskaltzaindiaren ordezkari bezala, E. Knörr, J.L. Lizundia eta N. Alzola jaunak joango dira.

"Andima Ibinagabeitia" sarirako mahaiburuko jaun hauk izendatzen dira: J.L. Alvarez Enparanza, P. Xarriton, eta A. Zatarain.

A. Irigoyen liburuzainak jasotako liburuen berri eman du, eta emaleei eskerrak ematea erabaki da.

J. Haritschelhar, euskaltzain buruordeak, atzo 24ean, Baionan egingako bileraren berri eman du. Asmoa "Association pour la création d'un Institut d'Etudes Basques à Bayonne" delakoa sortzea da. Kontseilua eratu da, Julian Ajuriagerra, buru eta Hartischelhar buruorde direlarik. Elkarte honen xedea: Bordele, Pabe eta Toulouseko Unibertsitateen babespean, euskal alorreko ikerkuntzatan saiatzea da.

J.L. Lizundia, idazkari ordeak, Bilboko Frantziako Kontsulari bisita egin dio, honen deia jasorik. Euskaltzaindiaren Iparraldeko nortasun

ofizialez aritu ziren. Arazo berean, Haritschelhar jaunak aipatu du nola Baionako Suprefetarekin harremanak hasi dituen eta laster Iparraldeko zazpi Euskaltzainek jaun hau bisitatuko dute eskabidea ofizialki tramitatzeko.

b) *GOIZEKO BILKURAREN BERRI*

Goizeko bilkuran, jaun hauek bildu dira: L. Villasante buru, J. Haritschelhar buru-ordezko, J.L. Davant, L. Mitxelena, E. Knörr, F. Krutwig, A. Irigoyen, J. Loidi, J.M. Satrustegi, X. Kintana, J.L. Lizundia, P. Laffite, E. Larre, J.A. Letamendia, J.M. Torrealday eta Martin Ugalde. Oregik ezin etorria adierazi du.

Ondoren, J.L. Lizundiak, Antolakizun Batzordearen Idazkariak, Bergarako Biltzarrearen prestalanak zertan diren azaldu du. Hitzaldi, txosten eta eskabideen xerokopia ere ukitu du, honek ematen duen lana aipatuz. Baita gomitak izan dira mintzagai: Alde batetik lau Diputazioei zuzenduko zaie bana, eta Eusko Kontseilu Nagusiaren Kultur eta Hezkuntz Kontseilari, bestetik.

Prensa-bulegoa Haritschelhar, Satrustegi, Torrealday, Ugalde eta Iriondo jaunek osatuko dute. Kanpoko harremanak, berriz, E. Knörr-en ardurapean izango dira.

Batzartuek aho batez ikusi dute komenigarri, Euskaltzaindiaren argitalpenak eta beste ("Euskara batua zertan den, esaterako) bertan izan daitezen salgai. Norbaitek Arantzazuko Txostena aipatu du eta Mitxelena Aditz Batua.

Gero, Biltzarrearen Programa irakurri da eta J.A. Letamendiak, Hizkuntz Batzordearen Idazkariak, ber lana aurkeztu du, aurkibide bat gaita.

Bergarako Biltzarrean lau motako mintzaldiak izango dira: hitzaldiak, txostenak, eskabideak eta elkarrizketak.

Biltzarrean parte hartzeko txartelak banatuak dira: Euskaltzaindiaren egoitzetan eta Bergaran bertan ere bete ahalko dira.

d) *P. Xarritton: "P. Broussainen paperak"*

P. Xarritton euskaltzain laguntzaileak irakurri du bere txostena. Broussain euskaltzainaren gutunez aritu da bereziki, eta horietatik jakin ahal ditugun berri ugaries. Areago, dio Xarritton jaunak, 1900-1920-erat euskal gauzak ikertu nahi dituenak behar-beharrezko izango du gutuneria hau.

Azkenean, gutunok argitaratzearen inguruan ageri diren koska aipatu ditu.

e) *X. Kintana: "Georgiako bidaiaren zenbait berri"*

Ondoren, X. Kintana euskaltzain laguntzaileak Georgiako bere egoaldiaren berri eman du. Harrera ezin hobea egin zioten, esan du, eta ikerlanari ekin, batez ere Georgieraren euskararekiko dukeen ahaidetasu-